

DEFINIZIOA

Egoera berrietara **MALGUTASUNEZ** eta **ALDABERATASUNEZ** (balio-aniztasuna) egoera berriei aurre egitea, eta aldaketak baikortasunez eta jarrera konstruktiboz onartzea.

EGOERA PRAKTIKOAK

Enplegua
bilatzea
norberaren kabuz
besteren kontura



Dekorazio ikasketak burutzen ari den UNAIk bi hilabete daramatza Oslon, iaz kultur elkartruckerako egitarau batean parte hartzeko eskaria egin baitzuen, bere burua eta curriculum-a aberasteko. Hiria, heziketa zentroa, ikasketa plana, hizkuntza, lagunartea... dena berria. A zer aldaketa piloa! Egoera berriari aurre egiteko, norvegiarren eguneroko bizitzako azturei eta ikasleen jokabideei begiratzen die. Ingeleseko eskolak hartzea erabaki du bestalde, duen maila hobetu eta eskolak hobeto jarraitzeko, eta lagunarteko harremanetan oztoporik ez izateko. Kirol klub batean eman du izena, eta asteburuetan, herrialdeko leku desberdinak ezagutzera joaten da, aldizkariak irakurtzen ditu, gai anitzi buruzko galderak egiten ditu, osasun sistemak nola diharduen galdetzen du... eta pixkanaka, norvegiarra dela irudituko zaio lehendik ezagutzen ez duenari.

Enplegua



ANeren enpresara asmo berritzaileak dituen zuzendari bat heldu da, helburuetako bat kalitate prozedurak ezartzea duena. Hasieran, aldaketak ikusita, Ane zurtu samar dago, zalantzak baititu lana ongi egingo ote duen eta behar bezala erantzungo ote dien eginkizunei. Hala ere, zuzendariarekin mintzatu du, informazioa jaso du, zalantzak argitu ditu hari galde eginez, prozedurak eta prozesuak ikasi ditu, aplikatzeari ekin dio, berrikusi egin ditu, metodo berriak baitaratzea lortu du eta egoera berriaz balorazio positiboa egin du.

Beste
alor batzuk



Adina aurrera doan heinean, MAITE eta MARCOSi gero eta beharrezkoagoa iruditzen zaie igogailua, beren eraikinerako. Eraikina oso zaharra denez, ezin dute instalatu eta hori dela-eta beste eraikin batera bizitzera joateko erabakia hartu dute. Auzotarrak, auzoa eta bizitza osoan ezagutu duten bizia utzi dituzte, Instalatu eta, hasieran, dena da berria. Integrazioa bizkortzeko, berriki sortu den auzotarren elkartearen prte hartzea erabaki dute, kultura etzean antolatutako jardueri buruzko informazio jaso dute, erosketak inguruan egiten dituzte, auzoak eskaintzen dituen zerbitzuak zein diren galdetu dute... Bi hilabete igaro ondoren, aldaketa uste baino errazagoa izan dela adierazi dute.

GOGOAN
IZAN

- ▶ Aldaketak EZ DIRA BEREZ TXARRAK, zergatik gara haien beldur? Aukerak eskaini eta abantailak ekarriko dituzte, seguru!.
- ▶ Aldaketari, MALGUTASUNEZ erantzun. Aldaketek eragiten dituzte aurrerapenak .
- ▶ SUSTATU aldaketa!



Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Fondoa

inguralde

BARAKALDOKO UDAL GORENA Erakunde Autonomoa
Organismo Autonomo ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO